

ELIKADURA BURUJABETZA

E R A I K I T Z E N

NAFARROAN





**Tokiko eta
bidezko
elikadura
sistemak
bultzatzen
dituen sarea
indartu eta
emakumeak
erdigunean
jarriz**

Burrutia

Bi urtetan zehar hitzaldiak, topaketak eta esperientzia trukaketak dinamizatu dira Nafarroako lurraldean barrena, 10 udaletxe baino gehiagok, tokiko akzio talde batzuk eta tokiko ekonomiaz eta elikaduraz arduratzen diren erakundeak, ehundik gora eskala txikiko nekazari eta gizarte zibileko 10 talde baino gehiagok parte hartuz. Emaitarik nabariena: argitasunez sartu da agenda publikoan “Elikadura Gobernatza” modura kontzeptualizaturiko politika publikoa, eta “Elikadura Burujabetza” eta “Agroekologia”-ren aldeko jarrera geroz eta sendoagoa da tokiko erakundeetatik hasi eta Kontratazio Publikoko Foru Lege berrira arte. Gainera, genero ikuspuntuaren garrantzia, belaunaldien arteko erreleboa lehen sektorean, edo elikadura-politika zehatzak (jantokietako erosketa publikoa, pakete higieniko sanitarioaren hesiak eraistea edo merkaturatzeko ibilbide laburren alde egitea esaterako) elkarriketa eta politika berrietan nabariagoak eta transbertsalagoak egin dira.

*“Pertsona edo gizarte batek askatasunean bere elikadura aukeratzeko ahalmena galtzen badu, ez da izango burujabe ez pertsona bezala ez herri bezala.”
(Elikadura Burujabetza Parlamentua 2018)*

1 — Erakundeen aurkezpena eta dokumentu honen zergatia

Mugarik Gabe Nafarroa, Mundubat eta IPES-entzat –Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza prozesu honen sustatzaileak– Elikadura Burujabetza gure laneko eta eraginerako ardatzetako bat da. Gure erakundeek errotze eta ibilbide handia dute Nafarroan, eta giza eskubideen, feminismoaren eta Elikadura Burujabetzaren aldeko lana era aktiboan egiten dute, iparralde zein hegoalde globaletan. Horregatik, 2016 eta 2017an, Nafarroako Foru Gobernuak elkarte eta Gobernu Kanpoko Erakundeentzat eskaintzen dituen laguntzetara kontsortzio moduan aurkeztea erabaki genuen, Nafarroan Elikadura Burujabetzaren inguruan sentibilizatu eta eragiteko asmoarekin, genero begirada kontutan hartuz eta hegoaldeko ikuspegiak eta esperientziak uztartuz.

Gure iritzian, bi urte hauetan egindako lana modu natural eta sendo batean hazi da, eta balio handia dauka izan duen transbertsalitate, eragin sozial eta Nafarroako lurralde guztiko egile ezberdinen parte-hartzea dela eta. Horregatik, garrantzitsua iruditu zaigu modu garbi baina xume batean biltzea, balio dezan, alde batetik, egindako lan guztiaren balioa ikusteko, eta; bestetik, erabilgarria izan dadin kontsultak egiteko edo inspirazio iturri modura erabiltzeko beste lurralde batzuetan sortu daitezkeen antzeko prozesuetan.

Jakitun gara -Newton parafraseatuaz- “urrutiago ikusi badugu, erraldoien gainean gabiltzalako dela”. Hau da, ekologia, agroekologia, ekofeminismoa edo Elikadura Burujabetzaren mugimendu politiko, zientifiko eta sozialak ereindako oinarrietatik abiatu gara, mundu osoan milaka pertsona eta erakundek bultzatzen dutena eta Nafarroan ere aurrekari asko dituen. Hori dela eta, gure foru erkidego txikian elikadura burujabetzaren bidean ibili dugun bidexka honetaz goatzera gonbidatzen zaituztegu.

Elikadura burujabetza herriek beraien elikaduraren inguruan eta tokiko elikadura sistemen gainean erabakiak hartzeko duten eskubide modura ulertzen dugu, prozesu aberats honetan hazitik platereraino parte hartzen duten eragile guztiak kontutan hartuz (ekoizpena, eraldaketa, banaketa, elikagaiak eskuratu ahal izatea, elikatzearen kultura, janaria prestatzea, dieta mota...). Ondasun komunak diren ura, lurra, haziak, jakintzak edo elikagaien merkantilizazioaren kontra egiten dugu, eta kostu sozialak eta ingurunearenak barneratzen dituzten eta karbono azterna baxuak dituzten zirkuitu laburreko ekoizpen jasangarrien aldeko apustua egiten dugu. Modu honetan baino ezin izango diegu benetan aurre egin gerrari eta goseari, klima-aldaketari, iparralde eta hegoalde globalen arteko ezberdintasunei eta gizarte neoliberaletan ugaritzen ari diren arrakala sozialei.

Gaur egun, elikadura-sistema erabat globalizatuta dago, eta elikadura sistemak osatzen dituzten kulturak, eragileak eta baloreak itotzen ditu: milaka kilometroko bidaia egiten dituzten elikagaiak, industrietan eragindako eraldaketen ondorioz guztiz desnaturalizatuak; eskulan merkea, nomada eta eskubiderik gabea; baliabideen pilaketa enpresa transnazionalen aldetik... Hegoaldeko herriek nekazaritza jasangarria eta familiartekoa mantentzen dute, baina geroz eta gehiago beraien lurrak, ura eta lurraldeak nola suntsitzen dituzten ikusten dute, ingurua pozoitu eta esportaziorako erabiliko diren monokultiboz betez. Iparraldeko herrietan aldiz, ekoizpen ekologikoa eta nekazaritza jasangarria zabaltzen doa apurka-apurka, baina, era berean, lurren pilatzea gorantz doa, nekazalgora eta ezagutzak desagertuz doa, biozidak eta kimikoak erabiltzen jarraitzen da eta multinazionalak eta banaketarako kate handiak dira politikak, salneurriak eta aberastasuna banatzeko erak ezartzen dituztenak. Horregatik, gaur egun dauden borrokarik gogorrenak lurraldeak babesteko ematen direnak dira, elikadura burujabetza aldarrikatuz, hau da, elikadura-sistemak eta lurraldeak nola kudeatu erabakitzeko eskubidea aldarrikatuz.

Gustavo Duchek idatzitako *“Secretos, relatos de mucha gente pequeña”* liburuan aurki dezakegun testu honek sistema honen gakoak azaltzen ditu: *“Tomate ekoizle bezala egiten zuen lanak familia elikatzekeo adina ematen ez zuela ikusita, aitak bere buruaz beste egin zuenean, Ghanako Prince gazteak bere etxetik alde egin behar izan zuen. Aitak bi hektareako lursaila zuen laborantza honetarako, eta bere emaztearekin batera herriko merkatuan, Navrongoan, oso modu onean saltzen zituen, Gobernuak, oso urrutitik inposaturiko aginduak jarraituz, inportaturik sartzen ziren tomateei muga-zergak kendu zituen arte. Ordutik, merkaturia kontserban dauden tomate lataz gainezka dago, eta tokiko tomateak baino azkoz merkeago, gainera. Lata hauetako asko Pullatik heltzen dira, Italiatik,*



Ekoizleak, udaletxeak eta gizarte zibileko jendearekin jardunaldia Nafarroako Parlamentuan, 2017ko ekaina.

non, Ghanatik irten eta hiru urte geroago, Princek jornalari esplotatu modura lana egiten duen, tomateen uzta, hain zuzen ere.”

Gure eguneroko ekintza “arruntenek”, jateak edo erosketak egiteak adibidez, gure ingurua eta osasunaz haratago, gugandik milaka kilometrotara dauden pertsonengan ere eragina dutela ulertzen dugu. Horregatik, elikadura burujabetza gure lurraldean ere landu beharra sentitzen dugu, eta modu horretan, lurraren defendatzaileak, bizitza duinaren eta beraien herrietan elikadura burujabetza eskubidearen alde lan egiten duten gure hegoaldeko kideak laguntzen ditugula uste dugu.

Badakigu lotura asko daudela iparralde eta hegoalde globalean bizi garen pertsonon artean, eta arazo estrukturalak eta antzeko egoerak bizi ditugula.

Ilido honetan, Cristina González-en bisitaz gozatzeko aukera izan genuen, Palenqueko, Chiapas-Mexico, “Ixim Antsetic” Emakumeen Etxeko partaidea dena. Han ere elikadura burujabetza lantzen dute lurraldearen babeserako eta herrien ahalduentzerako printzipio modura. Cristinak Nafarroako bost merindadeetan eman zituen hitzaldiak, eta Mexikoko emakumeek elikadura burujabetza nola eraikitzen duten kontatzeaz gain, hemen bizi dugun egoera ezagutu ahal izan zuen.

“Esperientzia ahaztezina eta ederra izan zen Nafarroan eman nuen denbora. Nahiz eta eraikin gutxi ezagutu eta ibilbide turistikoak egiteko aukerarik ez izan, zorte askoz ere handiagoa izan nuen, zibilizazio ezberdinei sendotasuna eta bizitza ematen dien benetako gauza harrigarria ezagutzea egokitu baitzitzaidan: bertako jendea, bere ametsekin, beldurrekin eta itxaropenekin”.

Aste oso bizia izan zen, komunitate ezberdinetatik ibili ginen eta jende zoragarriarekin hitz egin ahal izan genuen Mexiko eta Europar Batasuneko eskualde batzuetan gertatzen diren bizitza zein heriotzaren esperientzien inguruko kontuei buruz. Oro har, aste horretan zehar egin nituen bisitetan Mexikoko landen egoera eta Ixim Antsetic Emakumeen Etxeak gure herrialdearen hego-ekialdeko taldeekin egiten duen lana adieraztean, bertako jendearekin lotura bat sortzen zen. Hitzaldi hauetara etortzen zen jendeak bere esperientziak ere kontatzen zituen, eta horrela ikusi ahal izan genituen Mexiko hegoaldean eta Nafarroako leku desberdinetan gertatzen denaren arteko desberdintasunak baina baita berdintasunak ere, azken finean, sistema kapitalista, bere itxura ezberdinetan, bizitzako modu ezberdinak, lurra, ura, animaliak eta pertsonak diruaren trukeko produktu bihurtzen ahalegindu da alde guztietan. Landa eremuak eta bertako biztanleak txirotu eta hondatuz oligarkiak eta eskualde bakoitzeko tokiko ekoizpena eskala handian merkaturatzen duten transnazionalak aberasten dituen sistema baten aurrean gaude.

Hitzaldietan parte hartzaileekin ametsak eraikitzen jardun genuen, itotzen duen bizitza hau hankaz gora jarritz, arbasoek utzi zutena berreskuratuz, gure gizarteari duintasuna eta etorkizuna itzuli nahian.” Cristina González. 2017.

Cristinaz gain, hegoalde globaleko beste kide batzuen bisita ere izan dugu, erlasionatutako proiektuengatik etorri direla eta, gure ekintzetan ere parte hartu dutenak (hala nola “nekazaritik-nekazarira” bisitetan, Parlamentu Irekian...). Horien artean, María Canil nekazari guatemaldarra, Via Campesinako eta Conaviguako partaide edo Clementina Garnica boliviarra, bere nazioko senatari ohia eta Bartolinas-en kidea.

Nola landu dugu Elikadura Burujabetza Nafarroan?

3

Nafarroan elikadura burujabetza lantzen duten eragile sarearekin lan egin da, zeinean Mugarik Gabe Nafarroak, Mundubatek eta IPESek ere parte hartzen dugun. Ekoizpen arloko eragileekin eta elikadura politika publikoak landu eta hauek sustatzearen aldekoak diren udaletxeekin ere lan egin da. Prozesuaren fase eta jarduera ezberdinetan merindade historiko bakoitzeko eragileek parte hartu dute eta beraiekin hitz egin da, baita Nafarroa osoan transbertsalak diren erakundeekin ere.

3.1. Abiapuntua: I Elikadura Burujabetza Parlamentua (2016ko otsaila)

Aipatzen ari garen prozesua martxan jartzearen hasierako gertaeretako bat 2016ko otsailean egindako I Elikadura Burujabetza Parlamentua izan zen. Ekitaldi hau Parlamentu irekiaren esparruan antolatu zen, Nafarroako Ganberako zuzendaritzatik gizarte zibilak proposatzen dituen prozesu eta eztabaidetarako eskaintzen den espazio gisa. 200 bat eragilek hartu zuten parte, esparru ezberdinetako planteamenduak eginez: kontsumoa, arlo teknikoa, osasuna, laborantzako eragile sozialak eta ekoizleen sareak... Hura izan zen gisa honetara antolatutako lehenengo parlamentu irekia, eta behar bada baita “entzunenetakoa” ere, bertaratutako jende kopuruagatik, difusioagatik eta izan dituen ondorioengatik.

Eskala txikiko nekazalgoaren erronka, ekarpen eta oztopoen inguruan eztabaidatu zen, genero ikuspuntua kontutan hartuz. Mundubat Fundazioak sustaturiko apustu hark indargune garrantzitsuak izan zituen:

Ikusmin handia sortu zuen eta eragileek lan marko positibotzat hartu zuten. Parte-hartzaileek proposaturiko ikuspuntuak onetsi zituzten. “Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak, Ingurumenerako eta Toki-Administrazioko” kontseilaria eta zuzendariak, Osasun Saileko teknikari batzuk eta Tokiko Erakundeak hitzordura hurbildu ziren.

Eztabaida eta hausnarketa giroa sortu zen ordu arte “espazio ofizialetara” edo sektoreko eragile sozialek eragin murrizta zuten tokietara mugatuta zeuden gaien inguruan. Otsailaren 17an, Parlamentua burutu eta 24 ordutara, autokudeatutako lau lan talde eratu ziren, laborantza-eragile sozialetatik haratago, parlamentariak, ekoizleak, gizarte zibileko taldeak, udaletxeak eta abarrek sorturikoak. Lan taldeak honako gaien ingurukoak antolatu ziren: Higiene eta Osasun eskakizunen egokitzapena, Salmenta Zuzena, PAC-UTA eta Erosketa Publikoa.

Elikadura Burujabetza eta eskala txikiko nekazaritzaren defentsa Elikadura Burujabetzaren irizpideekin eta genero ikuspuntutik Nafarroako eztabaida publikoan sartu zen.



Nafarroako lehenengo Elikadura Burujabetza Parlamentua.

Erosketa Publikoko lan taldeak, non Mundubat fundazioak parte hartzen duen, 2018ra arte martxan jarraitzen du, mugarri argiak lortuz: Iruñeko Udaletxeko 10 haur-eskoletan eguneko menua tokiko produktu freskoa, ekologikoa eta garraikoa erabiliz eraldatzeko prozesuan eragina eta laguntza; Sektore Publikoko Kontratuen Lege berriko (2018) 17. xedapen gehigarria onartzeko inzidentzia, zeinak ate garrantzitsu bat irekiko dion Elikadura Burujabetzaren irizpideekin eskoletako jantokietarako, ospitaleetarako eta erakunde publikoetarako elikagaien erosketa publikoari, nekazaritza txikian, eredu jasangarrietan eta landa-eremuen erresilientzian eragin zuzena izanik.

3.2. Elikadura Burujabetzaren inguruko Sentsibilizazio Prozesuak bost merindadeetan (2016-2017-2018)

Proiektuaren ikuspuntuaren gako garrantzitsuenetako bat jarduerak deszentralizatzea eta Iruñea eta bere eskualdetik haratago lan egitea izan zen. Horretarako, Nafarroako 5 merindade historikoak hartu ziren erreferentziatzat (Iruñeako merindadea, Zangotzako merindadea, Lizarrako merindadea, Erriberriko merindadea eta Tuterako merindadea).

Planteamendu honek eskualde bakoitzeko eragileenganako hurbiltasuna eta toki bakoitzeko elikadura sistema hurbilagotik ezagutzeko aukera ekarri du. Nafarroa txikia da, baina nekazaritza-ezagueretan eta erabileran oso aberatsa, eta honek idiosinkrasia bakoitzari leial izatea ekarri du. Gainera, landa eremu eta nekazari mundu bizi baten alde egotean, erabat koherentea zen planifikaturiko jarduera eta proposamenak lurralde bakoitzera eramatea, parte-hartzaileei Iruñera joatea eskatzea baino. Hau erabakigarria izan da konfiantza hartzeko eta merindade bakoitzean eragileen sarea, alternatibak, mugak eta proposamenak zeintzuk diren jakiteko.

Modu honetan, merindade bakoitzean 3 jarduera ezberdin landu dira:

- Emakume ekoizleez osaturiko lan taldeak.
- Elikadura burujabetzaren inguruko formakuntza eragile lokalekin.
- Hitzaldiak, erakusketak, dokumentalak eta ekoizpen guneetara bisitak publiko ororentzat.

Kasu guztietan, ahal den heinean, jarduerak moldatu, pertsonalizatu, osatu edo zabaltu egin dira tokiko parte-hartzaile eta eragileekin adostuz.

3.2.1. Emakume ekoizleez osaturiko lan taldeak.

*Zure baitako indarra
Ez da berdintzerik
Bizitzaren harri kozkorrak
Legar bihurturik
Beti kementsu
Lan ta lan laketurik
Zure ahalegina ordea
Ez da aski aintzat harturik.
(Emazteki langilea. Mugaldekoak)*

Elikadura Burujabetzari buruz mintzatzen garenean, emakumeek mintzatzen gara dudarik gabe. Pertsonon elikaduran emakumeek izan duten eta egun

daukaten papera ukaezina da, hazien zaintza, ezagutza eta eraldatzetik hasita, mundu osoko sukaldeetan janaria prestatu edo landa bizitzako arlo bakoitzean egindako lan bukaezineraino. Gure antzinako amonengandik hasita gaur egunera arte lan etengabea eta amaiezina egin dute, aldiz, nabarmen ikusezin izan dena.

Horregatik, garrantzitsua iruditu zaigu Nafarroako emakume ekoizleei ahotsa ematea komunean jar ditzaten beraien eguneroko jardueretan dituzten oztoporik handienak, baita horren aurrean proposamenak egiteko ere. Elikadura Burujabetza lantzeko orduan, sektoreari dagozkion arazo asko komunak dira bai gizon bai emakumeentzat, baina zenbait berezitasun emakumeekin hitz egitean soilik ikusiko ditugu. Gainera, bereziki emakume baserritarrak interesatzen zitzaizkigun, ikusezintasun historiko hirukoitza daukan kolektiboa baita: emakumeak, landatarrak eta nekazariak izateagatik.

Horretarako, bost lan talde egin ziren, merindade bakoitzean bat, baita helburu bikoitza zuen seigarren tailer bat ere: alde batetik, aipaturiko bost taldeetan agertutako arazoen lehenespen bat egiteko, eta bestetik, eskualde desberdinetako emakumeek elkar ezagutzeko eta esperientziak konpartitzeko (eskaera hau merindade bateko lan taldetik atera zen). Familia nekazaritzako ereduan lan egiten duten emakume ekoizleek hartu zuten parte, baita elikadura burujabetzako arlo desberdinekin lotura duten emakumeek ere (kontsumo taldeak, hurbileko merkataria, autokontsumoko ekoizpenak...). 38 emakume guztira.

Bilerek Nafarroako emakume ekoizleak ezagutu eta harremanak sendotzeko balio izan zuten, baita beraien eguneroko arazoak kontatu ahal izateko espazio bat eskaintzeko ere. Parte-hartzaileek bileren formatua zein tokia eskertu zuten, eta askok 2016tik 2018ra lantzen ari garen prozesu hau modu aktiboan jarraitzen dute, Parlamentuko saioetan eta antolatutako ekimenetan parte hartuz.

Emakumeekin egindako talde lanen ondoren “Emakume ekoizleak eta Elikadura Burujabetza Nafarroan, generoaren ikuspegitik” dokumentua argitaratu zen, euskaraz zein gaztelaniaz eta on-line zein fisikoan eskura daitekeena. Aipaturiko dokumentuan bileretan adierazitakoa sistematizatu da eta proposatutako eskaerak “puntu” sistema bidez ordenatu dira. Jarraian aipatutako txostenaren emaitzen atala berreskuratzen dugu:

Nekazaritza sektore oso maskulinizatua dela ikusten da, nahiz eta emakumeak haren parte aktibo izan diren betidanik. Hala ere, ez dute behar zituzten aitorpena eta balioa jaso. Ikusgai ez egote eta aitorpenik ez egite horrek bere ondorioak ditu, gainkarga psikikoa nahiz fisikoa sorrarazten baitie, zeren,



Emakume ekoizleekin lan taldeak.

dagokien tokian egoteko, sektorean beren erabaki ahalmena handitzeko eta aitor ditzaten, gizonek baino ahalegin eta lan handiagoak egin behar baitituzte. Horregatik, nekazaritza munduko emakumeen erabaki ahalmen txikia arazo sentituenetako bat eta puntu gehien izan dituenetako bat da (lehentasuna emateko orduan). Horri guztiari gehitu behar zaio ugalketa eta zaintza lanak ere gehienetan haiei egokitzen zaizkiela. Balioa diruaz neurtzen duen sistema batean, zaintza lana ez dago nahikoa balioetsirik eta ez zaio pertsonen bizitza mantentzeko daukan garrantzia ematen.

“Zerbitzu publikoen falta honek asko zailtzen du kontziliazioa. Azkenerako haurrak zure egunerokora, zure lanera egokitzen dituzu. Amonarik baldin baduzu, hobeto konponduko zara. Amona ondo egonez gero, noski! Bestela, lan bikoitza da. (Lizarrako merindadea)

(...) Administrazioaren “gorreriak” ere paper nabarmena izan du talde ezberdinetan. Nekazaritza-politikan eta arautegietan, baserri munduko eta familia nekazaritzaren alde egiteko politika integralen beharrezana boto gehien jaso duena izan da, ustiapen txikiei egokitutako arautegiaren beharrezaren ondoren. Guztiak baserritarren nekazaritzaren ikusezintasunaren eta balorazio faltaren ondorio zuzenak dira: hirikoa den mundu batean, non balioa kapitalak definitzen duen, baserri munduari eta nekazari txikiei ez zaie pertsonen elikaduraren arduradun bezala duten garrantzia eta lekua ematen.

Parte-hartzaileek tokiko ekoizpen jasagarria eta nekazaritza txikia ez ezagutzea eta baliorik ez ematea landu beharreko bigarren arazo garrantzitsuena bezala daukate. Ildo honetan, hezkuntzak betebeharrak garrantzitsuak du: gizarteak orokorrean informazioa falta du jaten dugunaren gainean (nork ekoizten duen, non ekoizten den eta nola ekoizten den ez da jakinarazten eta ezagutarazten). Honek ez du lehentasunezko lekurik ez hezkuntza formalean, ez informalean, eta kontzientziazio falta handia da. Jendeak ez dauka loturarik ez lurraekin, ez lurraldearekin ezta produktuekin ere, eta askotan ez dakigu tokiko produktuak ezta garaikoak zeintzuk diren ere.

(...) Sektorearen balio eza eta ikusezintasunari lan karga ikaragarria, eta administrazioaren aldetik laguntza falta gehitzeaz gain, landa eremuko ezaugarri propioek ere zailtasun gehiago suposatzen dute. Herrietan dena da zailago, zerbitzu gutxiago dago hirietan zentralizaturik daudelako, eta, oro har, ibilbide luzeak egin behar dira, automobilean batez ere, garraio publiko gutxi dagoelako. Hirietara egindako migrazioak eta ondorengo ordezkapen ezak landa eremuaren zahartzea eta maskulinizazioa eragin dute.

“Emakume batek herrian lan egiten badu, bere seme-alabak han egongo dira eta herriaren parte izango dira. Gizonezkoekin ez da beti hau gertatzen. Emakumeak biztanleak ziurtatzen ditu lurraldean. Baserri mundu bizi bat mantendu ahal izateko, emakumeek hor egon behar dute beren egitasmoekin, lanekin, eta familiekin. (Lizarrako merindadea)”

Herri txikietan zailtasunak dituzten pertsonen bizia aurrera ateratzen dute auzokoen solidaritateari eta komunitatearen lanari esker, baina hau ere gainbehera dator herriak hutsak geratzen ari delako, biztanleak zahartzen ari direlako eta eguneroko ohiturak geroz eta indibidualistagoak direlako. Emakumeen kolektiboen beharra sentitzen da sozializazioa, zaintza eta elkarri laguntza eskaintzen dioten eremuak bezala.

“Laguntza aurkitu behar da bizirauteko. Ez dago bakarrik sentitzea baino etsai okerragorik” (Iruñeko merindadea.)”

Parte hartu duten emakumeentzat hau da oinarrizko eta lehentasunezko puntua: nekazaritza, ekonomia eta gizarte eredu aldatzeko beharrezkoa da, Administrazioak Elikadura Burujabetzaren aldeko apustu tinkoa egin behar du.

3.2.2. Elikadura burujabetzaren inguruko formakuntza eragile lokalekin

2016ko I Elikadura Burujabetza Parlamentuan Nafarroan honen inguruan jadanik lan egiten zuen eta aurrera pausoak emateko gogotsu zegoen sare zabal bat bazegoela ikusita, garrantzitsua iruditzen zitzaigun ekimen hauek sendotzea, suspertzea eta bidean laguntzea, elikadura burujabetza ekonomia, osasuna, kulturala, hezkuntza eta politikaren eraikuntzarako giltzarri gisa planteatuz.

Helburu honekin, prestakuntza eta eztabaidarako bilerak antolatu ditugu merindade bakoitzean profil ezberdinetako eragileekin. Lehenengo urtean eskualde bakoitzean hiru bilerako ziklo bat antolatu zen, zeinetan, gaur egun elikaduran gailentzen den sistema, elikadura burujabetzatik egindako proposamenak, baserri munduko eta lehen sektorean lan egiten duten emakumeen egoera, jada abian dauden eta ondo funtzionatzen duten esperientzia eta alternatibak, eta tokiko erakundeek politika publikoen bidez elikaduraren gobernatzarako dauzkaten aukerak landu ziren.

Bilera hauetan Ibarretako eta Udaletako eragile instituzionalek (alkatetzak, zinegotziak, teknikariak...), tokiko garapen agentziek, mugimendu sozialek, pertsona ekoizleek, denda txikiek... parte hartu dute, ehun pertsona inguruk orotara. Bilera hauek parte hartzaileen artean harreman, konplizitate eta sinergia gehiago egiteko aukera eman dute, eta aktore ezberdinak elkarlanean aritzea ahalbidetu dute (eskala txikiko baserri ekoizpenak/ udaletxeak/ tokiko ekintza taldeak/ gizarte zibila). Era berean, elikaduraren gobernatzarako ekintzak eta elikadura burujabetzaren irizpideak eta kontzeptuak agenda publikoan sartu dira, esaterako:

- **“Tokiko elikadura-sistema”** bidezkoak, jasangarriak eta erresilenteak.
- **“Agroekologia”** klima aldaketaren kontrako borroka, ingurumenaren zaintza eta elikagai osasungarrien iturri bezala.
- **“Elikadura Burujabetza”** lurraldearen eta komunitatearen eraikuntza eta defentsarako eskubide gisa.
- **“Elikadura gobernantza”** elikadura erdigunean jartzen duen politika publiko gisa.
- **“Elkagaien Erosketa Publikoa”** tokiko baserritarrei laguntzeko eta landa eremu bizi baten aldeko tresna gisa.

Formakuntzetan parte hartu zuten hamarnaka eragilek gogotsu jarraitu dute proiektutik proposaturiko gainerako ekitaldietan, eta funtsezko pertsonak izan dira egindako ekintzetan (Elikadura Burujabetza Foro eta Parlamentuak, hitzaldiak, bideoak-dokumentalak eta abar). Nafarroa osoan transbertsalak diren eragileen sare bat sendotu da, haziak ereitetik eguneroko otorduetako platerretaraino doana, Elikadura Burujabetzarekin eta Tokiko Elikadura-Sistema egokiago eta jasangarriagoen eraikuntzan konprometitua.

> Elikadura Burujabetza sendotuz lanean aritu diren parte-hartzaileen sarea

Ondorengo taula hauetan merindade bakoitzean saioetan parte hartu duten eragileak laburbiltzen dira. Azpimarratzekoa da lurralde guztietan eragileek izan duten inplikazioa, bai proposaturiko jardueretan parte-hartzeko orduan, bai lekuak eskaintzean, deialdiak prestatu eta hedatzerakoan, foro publikoetan beraien mugak eta aurrerapausoak azaltzerakoan... Parte-hartze honek prozesua ikaragarri aberastu du eta babes handia eman dio.

Erriberriko Merindadea Parte-hartze altua eta ekarpenak bi urteetan zehar.	Tokiko Erakundeak	• Erriberri, Tafalla, beste batzuk (Tafallako zinegotziak, Erriberriko alkatea eta zinegotziak, beste herri batzuetako zinegotziak) • Agenda politikoan Elikadura Burujabetza politika publikoak sartu dira. • Proiektuaren sinergiak eta jarduerak Tafallako Ferietan ("Baratze Kritikoa" erakusketa, azoken inguruko hitzaldia). • Espazio publikoak utzi dira jardueretarako.
	Gizarte Zibila	Lantxurda Taldea (Elikadura Burujabetzako urteroko Jardunaldiekin sinergiak)
	Pertsona ekoizleak edo eraldatzaileak	Emakumeekin egindako lan taldeetan, formakuntza saioetan, bideoetan... parte hartzea (ekoizleak, tokiko dendak, Elikadura Burujabetzako ekintzaileak...)
	Beste aliantza batzuk	Erdialdeko Tokiko Ekintza Taldea (jardueretan, difusioan, jardueren egituraketan eta lekuak uzten parte hartu du)

Zangozako Merindadea Pirinioak Parte-hartze eta ekarpen onak. Pirinioetako ibarretan eskaera handiago bigarren urtean.	Tokiko Erakundeak	Zangoza, Erronkari Ibarra, Zaraitzu Ibarra, Aezkoa Ibarra (Zangozako zinegotziak, Pirinioetako zenbait herritako zinegotzi eta teknikariak) • Agenda politikoan Elikadura Burujabetza politika publikoak sartu dira. • Zangozako Potxari Goraipamen Jarduerekin sinergiak (2017). • Espazio publikoak utzi dira jardueretarako.
	Gizarte Zibila	EHNE Nafarroa Pirinioko Mahaia Txantxalan Pirinioan Bizirik Gaude Pirinioan Lan eta Bizi Janaske kontsumo taldea Pirinioetako 2017ko Ponentziako parte hartzaileak
	Pertsona ekoizleak edo eraldatzaileak	Emakumeekin egindako lan taldeetan, formakuntza saioetan, bideoetan... parte hartzea. Parte-hartze handia Pirinioetako Aezkoa, Erronkari eta Zaraitzuko ibarretan antolatutako hitzaldi eta tailerretan (90 pertsona eta eragiletik gora)
	Beste aliantza batzuk	Erronkari-Zaraitzu eta Zangozako Cederna Garalur

Iruñeko Merindadea Parte-hartze eta ekarpen handiagoa mendialdeko herrietan. Zenbait zailtasun Iruñeko Udaletxeak parte-hartzerakoan bere tamaina eta sail aniztasunagatik (nahiz eta ahal den lan guztia egin den udalarekin bere erreferentzialitateagatik Milaneako Itunarekin eta Haur Eskoletako jantokietako eraldaketarekin)	Tokiko Erakundeak	- Leitza, Baztan, Iruñea, ... (Baztango Alkatea, Leitza eta Iruñeko zinegotziak...) - Agenda politikoan Elikadura Burujabetza politika publikoak sartu dira. - Iruñeako Udaleko Bulego estrategikoa, Tokiko ekonomia jasangarriko sailak, Berdintasun saila eta Iruñeako Udaleko Hiriko Mugikortasun eta Ekologia saila... - Espazio publikoak utzi dira jardueretarako.
	Gizarte Zibila	Jateko Piparrika Grupo SobAl de Soberanía Alimentaria LeitzEko kontsumo taldea Grupo de Compra Pública de Navarra Sortzen Elikart Hazitik Hozie Baztango Zaporeak Bidazi
	Pertsona ekoizleak edo eraldatzaileak	Emakumeekin egindako lan taldeetan, formakuntza saioetan, bideoetan... parte hartzea.
	Beste aliantza batzuk	Iruñeako Haur-eskolako Erakunde Autonomia Sakana Garatzen

Tuterako Merindadea	Tokiko Erakundeak	- Tutera, Arguedas, Azkoien (Tuterako ingurumen zinegotzia, Arguedaseko alkatea...) - Agenda politikoan Elikadura Burujabetza politika publikoak sartu dira. - Tuterako barazkien Jardunaldietan, Jasangarritasunaren Eskolan eta Arguedaseko Jasangarritasunaren jardueretan proiektuaren sinergiak. Espazio publikoak utzi dira jardueretarako.
	Gizarte Zibila	Ecologistas en Acción Mascotas Verdes Fundazioa Helianto Kolektiboa Bidezko Merkataritzako denda
	Pertsona ekoizleak edo eraldatzaileak	Emakumeekin egindako lan taldeetan, formakuntza saioetan, bideoetan... parte hartzea.
	Beste aliantza batzuk	Tokiko Ekintza Taldea (EDER) Tuterako Gizarte Eskola

Lizarrako merindadea	Tokiko Erakundeak	• Lizarra, Deierri, Sartaguda... (Lizarrako alkatea eta Ingurumen zinegotzia, Deierri eta Sartagudako alkateak...) • Agenda politikoan Elikadura Burujabetza politika publikoak sartu dira. • Espazio publikoak utzi dira jardueretarako.
	Gizarte Zibila	Asamblea de Mujeres Estella-Lizarra Ekologistak Martxan Nafarroako Hazien Sarea
	Pertsona ekoizleak edo eraldatzaileak	Emakumeekin egindako lan taldeetan, formakuntza saioetan, bideoetan... parte hartzea.
	Beste aliantza batzuk	Tokiko Ekintza taldea (TEDER)

Nabarmentzekoa da zenbait eragile prozesu osoan zehar transbertsalak izan direla, eta beraiekin harremana mantendu dela une oro, esaterako, Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseilua (NNPEK) edo Elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Institutua (INTIA). Modu berean, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentua ere prozesuaren jakitun izan da, eta prozesuaren bultzatzaileak bai Zuzendari Nagusi batekin bai Departamentuko Kontseilariarekin bildu dira.

> Elikadura Burujabetza Topaketa Nafarroako Parlamentuan 2017ko ekainaren 13an.

Topaketa honetan bost merindadeetako udal ordezkariak, ekoizleak eta aliantzek Nafarroako Parlamentuko Erabilera Anitzeko Aretoan hitza hartu zuten, eskualde bakoitzeko Tokiko Elikadura Sistemen egoera azaldu eta Elikadura Gobernantza, Agroekologia eta Elikadura Burujabetzaren alde egindako apustua plazaratzeko.

Saio honetan, Nafarroako Parlamentuak anfitrioi gisa jarduten du Parlamentu Irekiaren Alorrean, nahiz eta Hemizikloan ez agertzea erabaki genuen aliantzak eta proposamenak hobeto landu arte. Helburua urtebetean aurreratutakoa kontatu eta parte-hartu duten eragileekin prozesua bermatzea izan zen.

Bilera honetako ahulgune handiena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuaren falta izan zen, azken orduko “agenda arazoak” direla eta ezin izan baitziren etorri. Hau etsigarria izan zen parte-hartu zuten eragileentzat, interlokuzioa eta entzute aktiboa espero baitzuten Departamentuaren aldetik.

Aipatu bezala, saioan merindade bakoitzeko ordezkariak egon ziren. Gainera, Gotzone Sestorain ekoizleak emakume ekoizleekin egindako lan saioetan oinarritutako manifestu bat irakurri zuen, eta Ester Montero ikertzaileak “Emakume ekoizleak eta Elikadura Burujabetza Nafarroan generoaren ikuspegitik” txostena aurkeztu zuen, hau ere lan taldeetan hitz egindakoarekin osatua. Bukatzeko prozesuaren ikuspuntuak eta parte hartzaileak biltzen dituen bideo-dokumental bat proiektatu zen.

Honako taulan txostenak eta merindadez merindade hitza hartu zuten ordezkariak izendatzen dira:

Laburbilduz, esan dezakegu, ekainaren 13ko bilerak merindade bakoitzean parte-hartu zuten eragileen arteko harremanak sendotu zituela eta udaletxeen, mugimendu sozialen eta elikadura burujabetzaren eta elikadura gobernantzaren

Aurkezpena	- Parlamentua: Mayorga Ramírez - Erakunde sustatzaileak: Maialen Chantre (Mugarik Gabe Nafarroa) eta Jaxinto Gómez (Mundubat Fundazioa)
Iruñeko Merindadea	- Patricia Perales (Iruñeako Udala. Tokiko Ekonomia Jasangarriaren zinegotzia) - Joseba Otondo (Baztango Alkatea) - Gotzone Sestorain (Leitzako gazta ekoizlea eta LeitzEko kontsumo taldeko partaidea)
Zangozako Merindadea	Imanol Ibero (EHNEko zuzendaria eta Aibarreko Mendiko upeltegiko ekoizlea)
Lizarrako Merindadea	Emma Ruiz (Lizarrako Udaletxea. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza saileko zinegotzia).
Erriberriko Merindadea	Pedro Leralta (Tafallako Udaletxea. Ingurumen zinegotzia)
Tuterako Merindadea	- Olga Risueño (Tuterako Udaletxea. Nekazaritza zinegotzia). - Santi Córdón (Mascotas Verdes Fundazioa) - Diego Blanco (Helianto Kolektiboa)
Landa-eremuko emakumeen txostenaren aurkezpena	Ester Montero (Txostenaren eta landa-eremuko emakumeekin egindako lan taldeen koordinatzailea. Arrea eta Ekologistak Martxan-eko partaidea)

aldeko ekoizle eta kontsumitzaile elkarteek gai-zerrenda agenda publikoan daudela bistarazi zuela. Milango Ituna eta Iruñeako haur eskoletako jantokien menuan egindako eraldaketa, Lizarrako Ekoizleen Merkatu egitasmoa edo Tuterako baratze sozialak elikadura gobernantzaren alorrean plazaratu ziren politika publikoetako batzuk izan ziren.

Pakete higieniko sanitarioa malgutzeko premia, salmenta zuzena eta zirkuitu laburren alde egitea, erosketak publikoan aurrera egitea edo udaletxeek elikadura gobernantzan emandako pausak laguntza gehiagorekin eta zuzenbideko ziurtasunarekin sendotzea ere nabarmendu ziren gaiak izan ziren. Gainera, landa-eremuko emakumeen beharrak eta eskaerak modu sistematizatuan aurkezten dira, bertaraturiko 80 pertsoneri txostena banatuz.

Hitza hartu zuten pertsonen gain, Nafarroako Gobernuak Berdintasun teknikariak, beste herrietako zinegotziak eta alkateak (Arguedas, Erriberri eta Leiza...), Elikadura Burujabetza lantzen duten taldeak, emakume ekoizleak, baita aliantza transbertsalen (NNPEK, INTIA, EHNE Nafarroa) ordezkariak ere etorri ziren.

Hitza hartu zuten protagonista guztiak bat egin zuten prozesua modu positiboan baloratzen eta abiatutako lan ildoak berresten. Genero ikuspuntua eta elikadura burujabetzaren inguruko irizpideak oinarri dituen landa-eremuko nekazaritzaren aldeko emakume ekoizleen dokumentua irakurri zenean, jardunaldiko momenturik hunkigarrienetakoa eta aktibatzaileenetakoa izan zen.

3.2.3 Hitzaldiak, erakusketak, dokumentalak eta ekoizpen guneetara bisitak publiko ororentzat.

Merindade bakoitzean gai ezberdinen inguruko hitzaldiak antolatu dira, toki bakoitzean lan egin den taldeen eskaeren eta interesen arabera. Esate baterako, Lizarran eta Tafallan merkatuen eragin ekonomiko eta sozialaren inguruko hitzaldia antolatu zen, Otsagabian Iparraldeko “Idoki” esperientzia



“Baratza Kritikoa erakusketa” bost merindadeetan.

ezagutu zen, Tuteran eskola-baratza eta baratza-sozialen aurkezpena egin zen eta Iruñean herri desberdinetan (Leitza, Sakana, Iruñea, Baztan...) Elikadura Gobernantzaren inguruan landutako esperientzien mahai ingurua antolatu zen.

Elikadura Burujabetza lantzen duen “Baratza Kritikoa” erakusketa bost merindadeetan egon da erakusgai, besteak beste Tuterako merkatuan, Lizarrako Fray Diego Kultur Etxean, Iruñeko Civivox Condestablean edo Otsagabiako Naturaren Interpretazioa bezalako leku aipagarrietan, eta kasu batzuetan, bisita gidatuak eta gaiarekin lotutako hitzaldiak ere antolatu dira.

Bestalde, bideo-dokumentalak ere grabatu dira: bata sentsibilizazio prozesuaren beraren ingurukoa, eta beste hiru elikadura burujabetzak planteatutako alternatibak, emakume ekoizleak eta iparralde eta

hegoaldeko ekoizleen errealitateari buruzkoak. Bideoetan bost merindadeetako eragileek modu aktiboan hartu dute parte, eta bertan agertzen den jendearekin batera zenbait bideo-forum ere antolatu dira. Bideoen grabaketak eta antolatutako gainerako ekintzek eragileekin harremanak sendotzeko eta difusiorako tresna gehiago izateko balio izan dute, baita parte hartu duten pertsonen beren burua baloratua sentitzeko ere.

Bukatzeko, garrantzitsua da aipatzea “nekazaritik nekazarira” deitutako bi bisita antolatu direla Nafarroako bi emakume ekoizleren proiektuak eta eguneroko lana zuzenean ezagutu eta partekatu ahal izateko. Bisita hauek edonorentzat irekiak izan dira, eta sarritan ezezagunak zaizkigun errealitateak ezagutzeko balio izan dute, baita elikatzen gaituzten emakume hauei duten balioa emateko eta parte hartzaileen arteko harremanak sendotzeko ere.

Lehenengo bisita Iturgoieneko gaztandegi batera izan zen, eta Nafarroako zenbait abeltzain, hiritar eta Nafarroako Gobernuako lankidetzaren saileko teknikari batzuek gain, María Canilek, Solidaritaterari emandako Nafarroa Saria jaso berri zuen buruzagi indigena eta nekazaria guatemaldarrak, ere parte hartu zuen. Bigarren bisitaldia Erratzuko Pittika ahuntz gasnategira izan zen, eta CERESeko (Landa Eremuko Emakumeen Estatuko Sarea) zuzendaria eta zenbait herritako ekoizle eta emakume feministak ere etorri ziren.

3.3. II Elikadura Burujabetza Parlamentua (2018ko maiatza)

Nafarroako Ganberan ospatutako II Elikadura Burujabetza Parlamentua prozesu hau ixteko momentu klabe bat izan da, 2016an egin bezala, Parlamentu Irekiaren eredu jarraituz Parlamentuko Hemizikloa betez. Helburua Elikadura Burujabetzarako bidean emandako aurrerapausoak aurkeztea zen, Udaletxe ezberdinek Elikadura Burujabetzaren eta Elikadura Gobernantzaren alde egindako apustua ikusaraztea, eta Nafarroako Gobernuaren eta bertaraturiko parlamentarien aurrean baserritarren, mugimendu sozialen eta udalerriek dituzten mugak eta eskaerak adieraztea.

Aurreko ataletan aipatu bezala, Elikadura Burujabetza 5 merindadeetan lantzen ibili gara, eta 2018an II Elikadura Burujabetza Parlamentua egin aurretik, eskualde bakoitzean “Merindadeko Parlamentua” antolatu da. Horrela, formatu desberdinetako topaketak antolatu dira, kasu batzuetan lan mahai teknikoak (Tafalla, Lizarra), beste batzuetan hitzaldi eta tailerrak (Pirinioetako Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkari ibarretan) edo publiko orori irekitako saio gisa (Iruñean eta Tuteran). Kasu guztietan beraz prestaketa saioak egon dira, merindade bakoitzeko egoeraren diagnostikoa egin eta Elikadura Burujabetza eta Elikadura Gobernantzaren gaineko oztopo eta aukeren identifikazioa egiteko, baita II Elikadura Parlamentuari begira merindade bakoitzeko ordezkariak aukeratu eta esan beharrekoa adosteko helburuarekin ere. Topaketa hauek oso dinamikoak izan dira, udaletxeetako, nekazal munduko eta mugimendu sozialetako ordezkariekin elkartzuz, eta parte hartzaileak berak izan dira saioen edukiak eta lehentasunak finkatu dituztenak, prozesuaren sustatzaileek dinamizatzaile eta bideratzaile papera hartuz.

Behar bada II Elikadura Burujabetza Parlamentuan prozesuaren aliatu transbertsal gisa falta izan den eragile garrantzitsu bat EHNE Nafarroa izan da (2016/2017ko prozesuetan parte hartu zuen), nahiz eta sindikatuko afiliatu askok modu partikularrean parte hartu saio eta topaketetan.

Maiatzak 15ean, San Isidro eguna eta II Elikadura Burujabetza Parlamentuaren egunean, garrantzitsua izan da Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Kontseilaria, Isabel Elizalde Arretxea, bertan egotea, baita hitza hartzea eta Departamentutik agroekologiarako trantsizioan eta landa eremuaren alde egiten ari diren lana azaltzea ere.

Dokumentu honen bukaerako loturetan merindade bakoitzeko bozeramaileak nor izan ziren eta bakoitzak azaldutakoa laburbiltzen duen mikroponentziak ikus daitezke.

II Elikadura Burujabetza Parlamentuak tokiko elikadura sistema bidezkoagoak eta jasangarriagoak eratzeko bidean ongi oinarritutako borondate kolektiboa adierazten du, Elikadura Burujabetza eta Elikadura Gobernantzarako politika aktiboen irizpideekin.

Kontratazio Publikoaren Foru Lege berrian 17. xedapen gehigarriak dituen Elikadura Burujabetza irizpide garbiak nabarmendu ziren, eta Iruñeako Udaleko 10 haur-eskoletako jantokietan elikagai freskoak, tokikoak eta garaikoak erabiltzeko apustuari balioa eman zitzaion. Lizarrak ekoizleen merkatuari buruz hitz egin zuen eta Tuterak eskola jasangarriaren eta baratze sozialen inguruan. Tafallak “Transgenikorik Gabeko Gunea” aldarrikatu zuen (txosten hau egin den momentuan 47 udaletik gorak onartutako proposamena) eta Erriberrik agroekologiaren alde egindako apustua. Pirinioetatik ingurua jendez hustearen arazoa, hurbileko elikagaiak eskuratzeko zailtasuna eta elikadura eta



Ekoizleei bisitak.

landa eremu bizien aldeko politiken beharra azpimarratu zen.

Egun horretan garrantzi handia eman zitzaion Euskal Herriko Laborantza Ganbarako (Behe Nafarroa) ordezkari baten zuzeneko lekukotasunari ere, “seigarren merindadearen” ispilu positibo gisa. Pirinioen iparraldean, Nafarroatik kilometro gutxira, salmenta zuzena eta baserri-nekazaritza errotuta daude, baita agroekologia, elikadura burujabetza eta tokiko elikagaien kontsumo arduratsua ere.

Jarraian, Parlamentuan entzundako mintzaldietako laburpen batzuk bildu ditugu:

“Ulertzen dugu Elikadura Burujabetza, eta, zehazki, nekazaritza ekologikoa, zero kilometroko produktuak, tokiko produktuak, zirkuitu laburreko salmenta, ekonomia zirkularra eta hurbilekoa eta arduratsua den ekoizpenaren aldeko apustuak erakundeen garapen estrategien ibilbidea markatu behar dutela, hau da, gure estrategien ibilbidea, txikienetatik hasita handienetaraino, herri txiki batetatik NBERaino.” (Erriberriko Merindadea)

“Nekazaritza ikuspuntutik lurralde aberatsa eta emankorra da. Lizarraldeak Nafarroa txiki baten antz handia dauka bai aukeretan eta bai arazoetan. Azken 6 urteetan ustiatzearen %10 desagertu eginda eta 100Ha baino gehiago dauzkatenak handitu (...). Baserritarren nekazaritza desagertuz doa eta nekazaritza industrial eta espekulaziokoa gorantz. Administrazio maila ezberdinetan egiten ari den politikak nekazaritza intentsibo eta eskala edo tamaina handikoa sustatu eta lagundu egiten du, kontuan hartu gabe, edo ardura handirik erakutsi gabe, baserritarren nekazaritzaren alde, bere jendearen alde, bere lurraldearen, bere kulturaren eta kontsumitzaileen alde. Zaintza falta honek nekazariak desagertzea dakar, eta herriak eta bailarak jendez hustea.

“Elikadura burujabetza sustatzeko ekoizle gehiago behar ditugu. Ekoizle burujabeak behar dira (beren haziak, arrazak, ondasunak, ezagutzak... dituztenak). Burujabetza kentzen diguten beste elementuen kontrola (banatzaileak, artekariak eta abar) gutxitu behar da, bukaerako produktuaren salneurria nekazariarendako izan dadin eta salneurri duina izan dadin”. (Lizarrako Merindadea)

“Iparraldean laborantza ereduaren inguruko eztabaida eman zen duela 30-40 urte. Zer eredu nahi da? Lehiakortasunaren izenean jendartea, ingurumena desegiten duen eredu bat, edo laborantza herrikoi eta iraunkorra?

Laborantza herrikoi eta iraunkorraren aldeko apustua egin genuen, eta egun gehiengoak eredu horretan sinesten du, ez laborariek ez gizarteak ez du agroindustriarik nahi.

Laborariek ez dute lotsarik laborari direla errateko, harro dira” (Behe Nafarroa. Euskal Herriko Laborantza Ganbara)



Nafarroako bigarren Elikadura Burujabetza Parlamentua, 2018ko maiatza.

Proiektu honen bidez egin ahal izan den dinamizazioaz haratago, egiaztatu dugu Elikadura Burujabetza gure lurraldeko agenda publikoetan geroz eta presenteago dagoela, eta hamaika kolektibo eta eragile ildo honetan lanean ari direla. Jarraian, denbora honetan merindade bakoitzeko kolektiboekin lan eginez ezagutu ahal izan ditugun ekimenen laburpen txiki bat bildu dugu:

- Tokiko produktuen merkatu baten sorrera Lizarran.
- Agroekologia eskola Deierri.
- Bertako ekoizleen presentzia Tafallako Ferietan.
- Agroekologiaren aldeko jarrera Tafalla eta Erriberriko komunaletan.
- Lantxurda Taldeak antolatutako Elikadura Burujabetza jardunaldiak.
- Hiriko baratze sozialak Tuteran.
- Tuterako Jasangarritasun Gela.
- Eskola-baratzeen sarea Erriberan.
- Jasangarritasunaren Jardunaldiak Arguedasen.
- Baratze-gela eta sukalde-baratza bizikleta-gurdia (Mascotas Verdes, Erriberan)
- Errigora (Euskal Herri osotik erosketa arduratsuko ekimena Erriberan, euskara eta auzolana nabarmenduz).
- Agroekologiako Herri-eskola Baztanen eta euskarazko agroekologia LH baten eskaera.
- Baztango Zaporeak (Elikadura Burujabetzaren irizpidedun eta komunitatean erroturik dauden ekoizleen sarea).
- Diagnosiko parte-hartzailea eta lehen sektorearen inguruko lan ildoak Leitzan.
- Leitzeta eta Aresoko produktuen Azoka Leitzan.
- Leitzako asteroko azokan tokiko produktuen presentzia.
- Iruñeako Tokiko Elikadura Sistemaren inguruko azterketa Milaneako Itunaren esparruan.
- Sakana Garapen Agentzia eta Belarditik lehengo sektorea sustatzeko ekimenak.
- Dastatu Sakana.
- Azoka gardenak Sakanako herrietan.
- Pirinioko Ponentzia (lehen sektoreari buruzko mahai berezi bat).
- Menuen eraldaketa tokiko, ekologiko, fresko eta garaiko produktuen alde Iruñeako haur-eskoletan.
- Elikadura burujabetza eta jantokien inguruko esperientzian Foroa.
- Nekazal Borroken Nazioarteko Egunaren ospakizuna Iruñean.
- Kontsumo talde ezberdinak Nafarroa guztian zehar.
- Nafarroako Hazien Sarea.

- Gizarte zibileko taldeak Elikadura Burujabetza eta Agroekologiaren ildoan lanean (batzuek urteak daramatzate, beste batzuk orain ari dira lan ildo hauek indartzen).
- Elikart.org, Nafarroan elikaduraren inguruan dauden alternatiben kartografia.
- Gure herri eta ibarretan itxaropenez eta modu iraunkorrean ernetzen ari diren beste gauza txiki eta handi gehiago.

Gainera, Nafarroako lurralde osoan aurrerapauso nabarmenak ematen ari dira elikadura burujabetzaren inguruan. Esaterako, aipagarria da gure herrietan “Laborantza transgenikorik gabeko herriak” izendatzeko mozioak onartu daitezela egiten ari den lana. Dagoeneko Nafarroako 47 herri baino gehiagok onartu dute mozioa, eta 2018ko ekainaren 5ean “Nafarroan ekoizpen transgenikoak debekatzeko aukera legal eta politikoak” lantzen zituen Parlamentu Irekia egin zen. Prozesu hau “Nafarroa transgenikoz libre” plataformak bultzatzen du, eta bertan daude prozesuan zehar aliantzak izan diren taldeak (Ecologistas en Acción de la Ribera, Ekologistak Martxan Lizarra, Lantxurda taldea, CPAEN...) baita proiektuaren sustatzaileak ere (Mundubat eta Mugarik Gabe Nafarroa). Garrantzitsua da aipatzea onetsitako mozio askok “glifosato” biozida debekatu egin dutela eta udalek Agroekologiareko konpromisoa hartzen dutela.

Aipatzekoa ere bai Erosketa Publikoa Nafarroan Lan Taldeak aurkezturiko zuzenketari esker 2018ko apirilaren 13an onartutako Erosketa Publikoko Foru Lege Berrian txertaturiko Elikadura Burujabetzaren irizpideak (17. xedapen gehigarria). Horri esker, lege berrian kontutan hartzen da ekoizle txikiak kontratatzea, karbono arrastorik gabeko erosketa egitea, kalitateari puntu gehiago ematea, bertako barietateak erabiltzea edo produktu freskoa, garaikoa eta ekologikoa izatea. Genetikoki eraldatutako organismoak alde batera uzten dira eta plastikozko bilgarriak ez erabiltzea sustatzen da. Lege aitzindari hau elikagaien erosketa publikoan erreferentea izango da, segurtasun juridikodun aterpea ekarriko diona antolaturiko baserritarren sareei, elikadura burujabetzaren irizpideak ezartzen dituzten eskolei, udaletxeei, eskoletako eta ospitaleetako jantokiei, etab. Leiho berri bat irekiko du erosketa publikoa nabarmen eraldatuz, lehen sektorearen eta erabilera jasangarriaren alde eginez.

AEN elkartearen bidez martxan jarriko den bilketarako zentrala ere garrantzizkoa izango da, erosketa publikoa, ostalaritza, etab, produktu lokal, fresko eta garaikoaz hornitzeko balioko baitu. Aipagarria da prozesu hauetan NNPEK eta INTIA bezalako eragileen parte-hartzea, baita ekologikoan lan egiten duten ekoizleen eta azaleraren gorakada ere.

Lehen sektorean jarraipena egon dadin, formakuntza espazioak ahalbidetzea ere ezinbestekoa da, adibidez Nafarroako Unibertsitatean 2017/2018 ikasturtean lehenengoz eskainitako Agroekologia Masterra.

5

Ondorioak

“Bakea garrantzitsuegia da militarren esku uzteko” dioen esaeraren pare, elikadura garrantzitsuegia da agroindustria eta politika globalen esku uzteko. Prozesu honen bitartez Nafarroan Elikadura Burujabetzaren eraikuntzan lanean gabiltzan eragileen sarea indartu dugu, eta eskala txiki zein ertainean

elikadura gobernantzaren inguruan martxan jarri diren politika publikoak ezagutu ditugu. Ildo honetan lanean jarraitzea garrantzitsua da, aliantzak sendotu eta zabaltzea, eta borroka honetan guztiok batera lan egitea, hazitik platererraino, gure elikadura eta lurraldeen eraikuntzarako bidezko elikadura sistemak guztion artean osatuz.

Dokumentazio eta material gehiagorako loturak

6

II Elikadura Burujabetza Parlamentuko bideoa, argazkiak, prentsa eta dokumentazioa.	http://www.mundubat.org/ii-parlamento-de-soberania-alimentaria-navarra/
Prozesuaren I faseko dokumentazio orokorra.	http://www.mundubat.org/tag/gobernanza-alimentaria-2017/
Prozesuaren II faseko dokumentazio orokorra.	http://www.mundubat.org/tag/gobernanza-alimentaria-navarra-2/
Mexikoko Crisitina Gonzalezek Nafarroara egindako bidaiaren kronika.	http://www.mundubat.org/mujeres-construyendo-soberania-alimentaria-en-mexico/
Prozesuaren II fasean aurkeztutako "Elikadura Burujabetzaren aldeko manifestua".	https://drive.google.com/open?id=1wI2Pvt6XA9DQ6SjpfBgnPr-jGaYpWV6i
Sentsibilizazio prozesuaren bideoa (I fasea. 2016-2017)	https://vimeo.com/236160287
"Emakumeen lurra / Tierra de mujeres" dokumentala.	https://vimeo.com/244918756
"Hemen eta han / Aquí y allá" dokumentala.	https://vimeo.com/267665628
"Izan eta ekin / Ser y actuar" dokumentala.	https://vimeo.com/267475386
"Emakume ekoizleak eta elikadura burujabetza Nafarroan, generoaren ikuspegitik / Mujeres productoras y soberanía alimentaria en Navarra: una mirada desde el género/" dokumentua.	http://www.mundubat.org/gobernanza-alimentaria-navarra-videos-y-dossier/
"Baratza Kritikoa / La Huerta Crítica" erakusketa	http://mugarikgabenafarroa.org/huertacritica-2/
Emakume ekoizleek 2017ko ekainaren 13ko saioan aurkeztutako dokumentua.	https://drive.google.com/open?id=1cnbw00ZwUoZGwuqkukrNWY9OqZzt_ywN
II Elikadura Burujabetza Parlamentuan merindade bakoitzak aurkeztutakoa.	https://drive.google.com/open?id=17U1omTrBk-FNwG4sBcW7Qr-WQMT0SSe62
Isabel Elizalde kontseilariak II Elikadura Burujabetza Parlamentuan egindako aurkezpena.	https://www.navarra.es/home_es/Actualidad/Sala+de+prensa/Noticias/2018/05/16/Consejera+Elizalde+avanza+progra+alimentacion+saludable.htm
2017ko ekainak 13an Elikadura Burujabetzaren inguruan egindako saioaren harira Nafarroako Parlamentuak ateratako artikulua.	http://www.parlamentodenavarra.es/es/noticias/jornada-sobre-gobernanza-y-soberan%C3%ADa-alimentaria